



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Prestatu bidea Jaunari”

2020ko abenduaren 6a
Abenduko 2. igandea (B)

Marko 1, 1-8

Hona hemen nola hasi zen Mesias eta Jainkoaren Seme* den Jesusen berri ona.

Isaias profetak idatzia zuen: *“Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik zuri bidea moldatzera. Ahots bat oihuka ari da basamortuan: Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari.”*

Honela bada, agertu zen Joan Bataiatzailea basamortuan. Bihozberritzeko eta bataiatzeko hots egiten zuen*, bekatuaren barkamenerako. Judea herrialde osoa eta jerusalemendar guztiak harengana zihoazen eta, beren bekatuak aitortzen zituztela, Joaneke bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Joaneke gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko; matxinsaltoak eta basa ezta jaten zituen. Honela hots egiten zuen: “Nire ondoren dator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte.”

Atondu egizue Jaunaren bidea. Bide-zidorretatik aldendurik, damu-bateora sartzeko deia jasotzen dau gizonak.

GEURE BEKATUAK AITORTU

Jose Antonio Pagola

«Jainkoaren Seme Jesukristoren Berri Onaren Hasiera». Horra Markosen ebanjelioaren hasiera itzaltsu eta pozgarria. Baina, segidan, bat-batean eta besterik gabe, bere Mesias eta Jauna onartu ahal izateko herri guztiak beharrezkoa duen premiazko bihotz-berritzeaz hasi da.

Basamortuan profeta desberdin bat agertu da. *«Jaunari bidea prestatzera»* dator. Horixe du Jesusi egin behar dion zerbitzu handia. Haren deia ez doakio lagun bakoitzaren kontzientziari soilik. Lagun bakoitzaren bihotz-berritzea morala baino zerbaite gehiago nahi du Joaneke. **«Jaunari bidea prestatzea»** da kontua, bide jakin eta guztiz zehatza, Jesusek berak egingo duen bidea, jende askoren itxaropen konbentzionalei huts eginez.

Hunkigarria izan da herriaren erreakzioa. Ebanjelioaren arabera, Judea eta Jerusalem alde batera utzi eta *«basamortuko»* bideari ekin dio, deika nabari duen ahotsa entzuteko. Jainkoarekiko, bere adiskide eta aliatu harekiko, antzinako bere leialtasuna gogorarazi dio basamortuak; batez ere, ordea, lekuri hobena da hura bihotz-berritzeko deia entzun ahal izateko.

Bizi duen egoeraz jabetu da han herria; kanbiatu beharra ekarri dio burura; bere bekatuak aitortu ditu han, bata besteari errua botatzen ibili gabe; salbazio-beharra sumatu du. Markosen arabera, **«beren bekatuak aitortzen zituzten»** eta Joaneke **«bataiatu egiten zituen»**.

Kristautasuna bizitzeko gure moduak behar duen konbertsioa ezin da inprobisatu. Barne-biltze eta barne-lan luzea eskatzen du. Urteak beharko dira Elizan egia zinezkoago eta handiago egin dezagun arte, eta gure kristautasunaren erdigunean JesuKristo onartu ahal izateko beharrezkoa den konbertsioa barruntatu ahal dezagun arte.

Hau izan liteke gaur egun gure tentazioa. «Basamortura» ez joan nahi izatea. Konbertsio-premiari izkina egitea. Aldatzera dei egiten digun ahots bati ere kasurik ez egitea. Edozein gauzarekin geure arreza zabartzea, geure beldurra ahantzi eta JesuKristoren egiari «bai» esateko geure adore-falta disimulatzeko.

Miresgarria da **«bere bekatuak aitortu»** delako judu-herriaren irudi hori. Ez ote gara egungo kristauok kontzientzi azterketa kolektibo bat egin beharrean, maila guztietan, geure hutsegiteak eta bekatuak aitortzeko? Aitorpen hori gabe, daitekeena ote *«Jaunari bidea prestatzea»?*